

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Esperientzia berri bat eskaintzen dugu nobedade bat da honelako gauzarik ez daudelako beraz ez dugu lehiarik.

Arrantza zaleei leku paregabea eskaini nahi diegu euren zaletasunaz disfrutatzen. Baita arrantza egiten ikasi nahi dutenek probatzeko eta ikasteko aukera izango dute ere irakasle profesionalekin. Eta azkenik itsasoa eta ibaiak maite dituzten horientzat honen inguruan aktibitate ludiko ezberdin eskainiko dizkiegu, baita eskolei ere euren curriculum-arekin bat datozen proiektuak antolatuz. Beti ere, proposatzen ditugun aktibitate guzti horien atzean hurrengo helburua egongo da: itsasoa ezagutu, errespetatu, zaindu eta era jasangarri batean disfrutatu.

Leku ezberdin bat proposatzen dugu egun zoragarri bat pasatzeko arrantza egiten edo arrantza egiten ikasten. Baita ere hainbat ekintza desberdinak eskainiko ditugu itsasoa eta ibaien misterioak eta ezaugarriak ezagutzeko eta disfrutatzen, halan nola txikientzako tailerrak, itsasoa dauden espezie ezberdinen behaketak eta informazioa emango dugu.

Gure parkearen barne, hainbat ekintza eta zerbitzu eskaintzen ditugu. Hauek dira nabarmenenak: ingurumenaren zaintzari buruzko hainbat informazio eta horrekin lotutako hainbat jolas umeentzat helaraziko ditugu. Horrez gain, helduentzat hainbat ekintza ditugu, kanabera bereziak eskaintzen dira hainbat modalitatetarako: rockfishing, surfcasting arrantza, light spinning. Itsasontzietan paseo ezberdinak eskainiko ditugu arrantza egiteko. Baita ere, hainbat food truck parketik sakabanatuta egongo dira guztiek jan ahal izateko parkean dauden bitartean.

Gure enpresaren politika nagusia, ingurumenaren zaintza eta ongizatea dira. Hau lortzeko, Ibaien eta erreken mantentzea sustatuko dugu, parkearen langileekin batzordeak egiten (gaiari buruz) eta hainbat helburu zehazten eta bestelako ekintzekin.

